

ONDARROA. Aurten ekitaldiak ugaritu egin ditue, Musikaldiari bultzadea emotearren



NEKANE AKARREGI

Ion Iñaki Artetxe Kultur batzorde buruak azaldu dauenez, «Ondarroan dagoen musika zaletasuna indartu egin nahi da Musikaldiagaz».

Musikaldiak 15 urte bete ditu

Euskal Herriko Musika Eskolen Alkarteko txikien orkestreak kontzertua eskainiko dau gaur

Lore Bengoetxea |

Ondarroako Pedro Mari Unanue Musikaldiaren XV. ekitaldia hasiko da, gaur. Antolatzaileek ugaritu egin ditue ekitaldiak, eskaintzeari indarra emotearren.

Musikaldiak 1987an hasi eban ibilbidea, Pedro Mari Unanue Fundazioaren eskutik. Kultura Batzorde buru Ion Iñaki Artetxek Fundazioaren ekarpenak gogora ekarri ditu. «Unanue herriko tenorea izan zan. 1814an jaio zan, eta 1846an hil. Fundazioak egindako ikerketek esker, bere sasoiaren zer izan zan jakin genduan. Aurkikuntza handia izan zan».

Ondarroako musikaldiaren historian zati bi bereizten dira. 1994ra arte kontzertu bakarra antolatzen zan, eta hortik aurrera, egitaraua zabaltzen joan da. Gaur egun, Udala, Pedro Maria Unanue Fundazioa eta Musika Eskolea dira antolatzaileak.

XV. ekitaldiari begira, saio ugari antolatu ditue. Lehenengo martxan dago. «Euskal Herriko Musika Eskolen Alkarteko txikien orkestra sinfonikoa Ondarroan dago, Alfa egoitzan. Gaur kontzertua eskainiko dau, frontoian eguraldi ona badago, eta elizan, txarra egotekotan», azaldu dau Ion Iñaki Artetxek. Orkestreagaz batera, Unanue

Musika Eskolako orfeoia be hartuko dau parte. «Talde bien zuzendaria Musika Eskolako irakaslea da, Jabier Ituarte ondarrutarra», azpimarratu dau Kultura Batzordeko buruak.

Musika klasikoa baino ez

Azkenengo urteotan egon dan beste aldaketa bat be aitatu dau Artetxek. «Orain dala hiru urte tik hona, errezitaldia musika klasikora bideratuta dago. Izan be, lehen beste estilo batzuentzat be tarte lagaten zan», gogoratu dau. Artetxek XV. Pedro

Mari Unanue Musikaldiaren ezaugarri batzuk emon ditu. «Gala liriko bi egongo dira, eta ahotsa ekitaldi guztietan dago ziurtauta. Aurreko urteekin alderatuta, desberdintasun bat badago: aurten musika barrokoa be eskainiko da».

Aurrekontua 3.764.000 pezetakoa da. Udala, Foru Aldundia eta BBK kargutuko dira gastuekin. Emonaldiak doan izango dira, gala lirikoak izan ezik.

Ion Iñaki Artetxek dinoanez, «ondarrutarrek musika zaletasun handia daukie, eta hori in-

dartu egin nahi da. Urtean zehar ez da egoten aukerarik holako ekitaldiak zuzenean ikusteko. Uda guztietan musika klasikoa ziurtau nahi dogu Ondarroan».

Jenteak ez ei dau beti be ondo erantzuten eskaintzen aurrean. «Aurtengo jardunaldian egitaraua etxerik etxe banatuko da, eta ekitaldi bakotxaren hasieran aldizkariak banatuko doguz jentearen artean. Informazino guztia eukiko dabe ikusleek», azaldu dau Artetxek.

MUNITIBAR

Nagusien bazkariagaz hasiko ditue sanpedroak gaur

L.B. |

Gaurtik aurrera San Pedro jaietan bete-betean sartuko dira Munitibarkoak. Nagusiek bazkaria eukiko dabe, trikitilariak alaituta, eta jokoak umeek, 17:00etatik aurrera.

Arratsaldeko 19:00etan futbolekin zein gehiago ibiliko dira Guraso Alkartea eta Gaztetxea, frontoian. Gaueko 22:30ean Basajaun taldearen erromeriagaz emongo da amaitutzat gaurko eguna.

Bihar bertsoak izango dira bazkari eder batez gozetako atxakia. 14:00etan ipini dabe ordua, eta Peru, Lazkano eta Akerra bertsolariak izango dira nagusi. Arratsaldeko 17:00etan, briska txapelketari emongo jako bidea. Handik ordu bira, antzerkiaren txandea izango da. Teatro Mohikano taldeak *Txamuskin* beharra aurkeztuko dau. Imuntzo eta Beloki arduratuko dira gaueko giroa alaitzeaz.

Kortari omenaldia

Domeka eguerdian dantzariak agerraldia egingo dabe, eta ostean presoan aldeko kontzentrazinoa burutuko da. Arratsaldeko 17:00etan, pelota partiduak hasiko dira. Tarte an Korta pelotariari omenaldia eskainiko deusie. Jaiak amaitzeko, Jon Maia eta Jokin Solozabal bertsolariak saioa eskainiko dabe. Ganera, egun guztian gaztelu puzgarriak egongo dira plazan.

EGITARAUA

BAGILAK 29, BARIKUA

22:30ean: Euskal Herriko Musika Eskolen Alkarteko txikien orkestra sinfonikoaren emonaldia, frontoian, 22:30ean (Eguraldi txarra badago, Andra Mari elizan, 20:00etan). Ondarroako orfeoia be parte hartuko dau.

GARAGARRILAK 6, BARIKUA

20:00etan: Gala liriko: Zartzelak, erromantzak eta opera ariak. Ekitaldia Bide Onera zinemaren izango da. Sarrerak 500 pezeta balioko dau.

GARAGARRILAK 13, BARIKUA

20:00etan: Musika barrokoa eskainiko dabe, antxinako musika tresnekin. Bertan Maria Folco mezzosopranoak, Concentusek eta Sine Nomine taldeak hartuko dabe parte. Ekitaldia elizan izango da.

GARAGARRILAK 20, BARIKUA

20:00etan: Musika klasikoko kontzertua eskainiko da, Andra Mari elizan. Carl Nielsen laukoteak joko dau.

GARAGARRILAK 27, BARIKUA

20:00etan: Musika barrokoaren bigarren emonaldia, antxinako musika tresnekin, Andra Mari elizan. Bertan, beste batzuen artean, Frantziako Tolosako Les Sacqueboutiers taldeak hartuko dau parte.

ABUZTUAK 3, BARIKUA

20:00etan: Gala liriko: Zartzelak, erromantzak eta opera ariak. Bertan Aurelio Gabaldon tenorrak, Marta Ubieta sopranoak eta Itziar Barredok hartuko dabe parte. Ekitaldia Bide Onera Zinemaren izango da. Sarrera 500 pezetan ipiniko dabe saltzen.

AGENDEA

BERRIATUA

San Pedro jaiak: Eguerdian herri kirolak izango dira, eta arratsaldeko 16:00etatik aurrera, umeentzako jolasak. Gaueko 22:00etan, profesinaren arteko zesta partiduak jokatuko ditue. Gaueko 23:45ean, Anje Duhalderen kontzertua.

ETXEBARRIA:

Presoen aldeko kontzentrazinoa: Udalak hileko azken barikuetan presoan aldeko kontzentrazinora deitzen dau, arratsaldeko 20:00etan plazan.

LEKEITIO

San Pedro jaiak: Goizeko 07:00etan dei

eittekua egongo dira, eta horren ondoren, bata bestearen atzetik, txistularien kalejire, udalbatzaren prozesinoa, Kilin-Kalakoa, Kaxarrankea eta Emakumeen aureskua egongo dira goizean. Gauean, musika egongo da plazan, Imuntxo eta Belokiren eskutik. Gaueko 22:30ean, Ttanttaka antzerki taldearen emonaldia egongo da, eta 23:00etan, zezen suzkoa.

ONDARROA

Musika Eskolako matrikulazinoa:

2001-2002 ikasturterako matrikulazinoa zabalik dago, garagarriaren 6ra arte.

Bolo-Bolo aldizkariaren deia: Bihar, Zapato Azule jaia dala eta, moilako bizilagunei balkoietan mahonezko erropak eskegiteko eskatu deusie.